

LEGE-TESTU ITZULIETAKO EUSKAL TERMINOLOGIAREN HUSTUKETARAKO METODOLOGIA*

Antton ELOSEGI ALDASORO

Euskara Teknikoa. Zuzenbide Fakultatea. EHU

On peut formuler une hypothèse qu'il est linguistiquement légitime de choisir un ensemble de textes, délimités d'une manière externe, dans le but de déterminer les ressources linguistiques sous-tendues, de dégager les propriétés, les principes, les tendances de ce sous-ensemble de textes, et, en ce faisant, d'enrichir, de préciser, d'approfondir la connaissance et la compréhension de la langue entière.

Kocourek (1991:24)

1. Aurkezpena

Komunikazio honetan, lan zabalago batean hizkera juridikoaren adibidetzat hartu dudan corpus konplexua lantzeko erabilitako metodo desberdinen artean, 1980-1997ko legeriaren hustuketarako erabili dudan metodologia deskribatu nahi dut. Bere zentzu osoa, beraz, lan osoaren baitan hartzen du.

Lan orokorrago baten zatia izateaz gain, esan dezagun hasi aurretik osatu gabeko lana dela hau, hustuketaren emaitzaren ustiaketa ez baitago urrik eman ere burututa, eta hustuketa bera ere oraindik ere ezin dezakegu osatutzat eman. Terminologia biltzar honetara ekarri baldin badut da euskal terminologia-lanetan, dakidanez, orain arte erabili ez den metodologia delako, eta uste dudalako, hain neurri handian itzulia den hizkuntza honi buruzko beste ikerketetarako ere erabili ahal izango dutela besteek gure honetan oinarritutako metodoa.

Hemen deskribatzen den lanaren ezaugarri nagusia da hizkuntza bateko (euskara) terminologia, beste hizkuntzako (gaztelania) testu batetik abiatuta lantzen dela. Hortaz, metodologia hau, terminologia deskriptibo elebidunean sartzen da. Bere aplikazioa, hortaz, testu-pareak eskura daitezkeeneko kasuetara mugatzen da. Gainera, eduki bereko bi testu, jatorrizkoa eta itzulpena, euskarri informatikoan eduki behar dira, orain dela urte gutxi arte erraz lor ez zitekeena, baino gero eta usuago izango dena.

* Nire eskerrik zintzoenak Eduardo Mancisidor, Eusko Legebiltzarreko Legelari Nagusiari, erabili dudan corpus informatizatua nire esku jartzeagatik, eta UZEIko Miel Loinazi alor askotan emandako laguntzarengatik, eta bereziki laguntza informatikoarengatik, bera baita hemen aipatzen diren programa informatiko berezien egilea.

2. Terminologia juridikoaren ezaugarri batzuk

Gauza jakina da teknolektoaz edo terminologiaz hitz egiten denean, Würster-en lanez geroztik bederen, hizkera zientifiko-teknikoak datozkigula¹ burura. Dударik gabe, termodinamika edo fisika koantikoa alor bereziki aproposak dira terminologiaren metodologia zehazki aplikatu eta erabili ahal izateko; gizarte-zientziak baino aproposagoak beti ere.

Badira zuzenbideari “zientifikotasuna” eta bere lexiko berezituari terminologia izena ukatzen diotenak (Aurel David (1982:33) . Baina eztabaida-maila horretan sartu gabe, oro har, zuzenbidekoari ez zaio ukatzen ‘eginkizun berezietarako hizkera (LSP)’ izate hori, eta bere terminologia lantzeko ere ez da bestelako metodologia desberdinik proposatzen.

Duarte, Broto (1986:11-12) liburuan honela karakterizatzen da hizkera juridikoa:

La tendència a la precisió, a la matisació i a l'estructuració semàntica dels termes, a fi d'establir una organització conceptual coherent i completa, que abracci totes les realitats designables i que les designi de manera inequívoca. Aquest tret comporta també el defugiment de la sinonímia. El tó formal i impersonal (...) El caràcter predominantment funcional: el text jurídic no ha de pretendre la bellesa estètica o la demostració d'un vocabulari extens que inclogui formes arcaiques que tnen un equivalent usual, sino l'eficàcia comunicativa. Aquest tret comporta l'ordenació interna del text.

Ezaugarri (unibertsal) horiez gainera, liburua idatzita dagoen hizkuntzari (katalanari) dagozkion beste hauek eransten dituzte Duarte eta Brotok: *L'ús de recursos lingüístics específics (ara com a forma específica –mot, prefix-, adés com a aplicació semàntica o freqüència d'aparició específiques d'una forma comuna). En el cas del llenguatge jurídic és habitual que aquests usos específics es produeixin a través de mots manllevats del llatí, per exemple: interdicte, evicció, etc.*

Aipatu liburuaren helburua preskriptiboa izanik deskriptiboa baino areago, hizkera juridikoari esleitzen zaizkion ezaugarri horiek ez dira beti dagoenaren konstatazioa, izan beharko lukeenaren deskribapena baizik. Izan ere, Duarte eta Brotok hizkera horren ezaugarritzat ematen dituzten batzuk, eskas dituenak dira.

Eztabaida alde batera utzita, aipa ditzagun besterik gabe lanketa honetan eragin handiena izan duten zuzenbideko lexiko berezituaren ezaugarri nabarmenenak.

- Gorago aipatu den bezala, zuzenbideko hitz tekniko gehienak ez dira bereziak formaren aldetik, adierazlearen aldetik, baizik eta hizkuntza orokorrean erabiltzen diren hitzen espezializaziotik sortuak, eta hortaz, horietatik bereizteko zailak. Horrela, badirudi hizkuntza guztietan² gertatzen dela hizkera juridikoko termino bakun (hitz bakarreko) eskusiboak oso urriak izatea, eta oso ugariak esanahi juridikoaz gainera beste esanahia dutenak. Testuingurua, beraz, askotan izango da beharrezkoa termino juridiko baten aurrean gauden ala ez erabakitzeke.

- Beste ezaugarria da zuzenbideko lexikoaren aukerak eta esanahiak estatu bakoitzeko sistema juridikoaren baitako izatea; hortaz, figura juridiko nagusi batzuei dagokienez kontzeptu (unibertsal) juridikoen izendapenez hitz egin badaiteke ere, bigarren mailako errealitateetan, eta erakunde, kargu eta arauen izenetan, oso “kontzeptu” partikularrez aritzen gara, sistema juridiko jakin bati lotutakoak, alegia.

¹ Horrela gertatzen da Picht, Felber, Draskau, Rondeau, Kocourek, Sager eta beste hainbaten lanetan bederen.

² Frantsesari buruz Cornu-k (1990:63) egindako azterketaren arabera, ez leudeke 400 hitz baino gehiago zuzenbidean bakarrik erabiltzen direnak. Ziurrenik antzeko azterketa eginez gero gaztelania juridikoa oso hurbil ibiliko litzateke.

- Bestea da terminoak eta tradiziozko izendapenak ez direla beti erraz bereizten. Hainbat kasutan zuzenbideko termino “gotortzat” emandakoak ongi aztertuz gero, errealitate arrunt, ez-tekniko, bati tradizioak ezarritako izendapen pragmatikoa besterik ez dela ohar baikaitezke. Hau da, gehiago direla jargoi edo soziolekto bati dagozkion mintzamoldeak, benetako terminoak baino. Hor sartu beharko lirateke zuzenbideko testuetan hain usu agertzen diren hainbat arkaismo (eta latinismoak ere) Esate baterako: pedimento, debitorio edo obrante³.

- Gauza ezaguna da testu juridikoetan, “edertasunaren” mesedetan, errepikapenak baztertzearren, oso maiz erabiltzen direla sinonimoak⁴.

- Terminografiaren konparaketak erakusten duenez, ez dago beti adostasunik zuzenbideko terminoak zein diren erabakitzekoan. Hiztegi batetik bestera forma-aniztasun handia egoten da; batzuk adjektibo edo aditz hutsak (compensatorio, compensar) sarrera gisa onartzen badituzte, beste batzuk izen-sintagmei (compensación, compensación de culpas, prestación compensatoria) soilik ematen diete leku.

3. Euskal terminografia juridikoa

Zuzenbideko euskal terminologiaren datu nabarmena da, euskarak Iparraldean erabilera ofizialik ez duenez, Espainiako sistema juridikoaren isla, eta gaztelaniaren itzulpenetatik sortutako terminologia izatea. Bestalde, egin bidean dagoen hizkera berri batean harrizkoa ez denez, finkotasunetik urrun dago, hala testuek nola hiztegiek erakusten duten bezala.

Aipatu beharrekoak dira gai horri buruz dauden joerak eta desberdintasunak. Joera horiek (euskara-ereduak ere aipatu dira) ez dira mundu juridikokoak bakarrik, alor guztiak zeharkatzen dituztenak baizik, baina uste dut alor honetan esplizitatu direla gehien, hala testu-produkzioan nola terminografian eta horiei buruzko eztabaidetan⁵. Azken urteotan hurbiltze-joera indartzen ari dela egia bada ere, bai idazketan, bai lexiko-terminologian oso mota desberdinetako testuak jasan behar izan ditu herritar euskaldunak. Ez dugu, alabaina, ezagutzen ikerketa-lanik erakusten duenik zertan eta zenbateraino diren desberdinak iturri desberdinetako terminologiak.

Eskola, joera eta eredu desberdin horien lekuko, ugari dira gai juridiko-administratiboetako hiztegiak, hitz-bildumak edota lexikoak, kontuan hartzen baditugu liburu gisa argitaratu direnak, eta argitalpen formalik gabe, administrazio-atal desberdinetan eta abar, ale askotan zabaldu direnak. Ezagutzen ditugun guztiak dira elebidunak, gaztelania-euskara, bakarren batek beste hizkuntzak sartzen baditu ere.

3.1. Hiztegi-motak eta adibideak

Ondoren, euskarazko terminografia juridikoaren sailkapen xume bat proposatuko dut zuzenbidea bere orokortasunean harturik. Lau motatako lanak bereiz daitezke:

³ Arkaismoak: Calvo Ramos (1980:94)

⁴ Hernandez Gil-ek (1989: VI, 376 et hurr.) dioen bezala, Espainiako Kode Zibilaren garrantzia duen testuan, toki desberdinetan *inmueble, finca, predio, finca o heredad, heredades eta fundo* hitzak erabiltzen dira, erreferentetzat errealitate juridiko berbera dutelarik, eta gauza bera, *condueños, partícipes, copropietarios, interesados en la cosa común, interesados*

⁵ Dozenaka akta aztertu beharko lirateke horren historia egiteko, baina nahikoa ideia garbia atera daiteke *Zuzenbidea Hiztegiaren* “Hitzaurre Orokorra” (UZEI, 1985:13-30) eta *Administrazio hizkera eta terminologiazko jardunaldiak*. (IVAP 1989) liburu mamitsuaren irakurketatik. Euskarazko hizkera juridikoaren alderdi guztien ikuspegi orokorra izateko ikus Urrutia eta Lobera (1995)

a) *Zuzenbideko hiztegi orokorrak.*

Esan nahi baita, zuzenbidearen sail eta adar guztiak jasotzen dituen hiztegiak. Hemen sartzekoak dira: UZEIren *Zuzenbidea Hiztegia*, eta Euskaltermeko zuzenbide-atala.

b) *Zuzenbide-adarretako hiztegiak*

Hau da, Penaleko edo Internazionalakoa bezalakoak. Unibertsitate barruan eta justizi administrazioan erabiltzeko egindakoak dira gehien bat.

c) *Administrazioko hiztegi orokorrak eta partzialak*

Esan bezala, administrazioko hainbat adar eta sailetan landu eta argitaratu dira bertan erabiltzeko hiztegi berezituak. Horien artean, bere orokortasunagatik bereizi behar dira IVAPek egindakoak, esate baterako *Administraziorako Euskal eskuliburua*. (IVAP 1986) eta *Hizkera Argiaren bidetik* (IVAP 1994) liburuan datozenak eta UZEIren (1983) *Administrazioa Zirkulazioa Hiztegia*

d) *“Lexikoak”*

Zaku-hitz horren barruan sartzen ditugu testu batean erabili diren hitzen eta terminoen berri ematen digun hitz-bildumak. Oso biltze-lan desberdinak ditugu hemen: terminologikoak, fraseologikoak eta abar.

Alde batean jar daitezke, IVAPek, eta UZEIk, besteak beste, egindako itzulpenen hiztegiak jasotzen dituztenak, adibidez: *Europako Ituneen Hiztegia*, *Vocabulario de los tratados europeos*. AGIRRE, Jon, eta bestek.(1991) eta bestetik, lan honen corpus beraren gainean egindakoak: *Agintaritzaren aldizkarietatikako hitz-bilduma*. *Vocabulario de los boletines oficiales* (1985) edo *Lurralde Antolamendu eta Hirigintzari Buruzko Hitz-Bilduma Glosario Sobre Términos de Ordenación del Territorio y Urbanismo* (1995) bezalakoak.

3.2. *Ezaugarriak eta kritika-puntuak*

Aipatutako terminografia-lanen kalitatea maiz izan da eztabaida-iturri. Esate baterako, *Zuzenbidea Hiztegia* behin baino gehiagotan aurkeztu izan da lehenagotik⁶ garaiko hiztegi-gintza berezituari egotzitako akatsen eredu bezala, maileguzko hitzei atea zabalegi irekitzea ere leporatuz. Bukatu ez den eztabaida horretan sartu gabe, gogoratuko dut hiztegi horren Hitzaurre Orokorrean esaten den bezala, hustuketatik ohartuki baztertu zirela alde aurretik idatzitako testu juridiko batzuk (Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria adib.), hiztegi horren lanketarako propio idatzitako artikulua hobetsiz. Erabaki hori ongi egokitzen zaio 1984an zegoen hizkera juridikoaren lekuko baino gehiago proposamen-multzo sistematiko bat osatzeko asmo adieraziari.

Uste dugu, ordea, administrazioko hiztegi orokorrei, eta zuzenbideko adar-hiztegiei neurri batean kritika beretsua egin dakiekeela; inoiz hustuketa sistematikorik egin ez denez, denak kontsideratu behar ditugu terminologia preskriptiboko lanak, ez deskriptiboak, alegia.

Gure sailkapeneko “Lexikoen” artean ipini ditugunak dira hustuketa hutsean oinarritutako bakarrak, alegia, produkzio idatziaren berri, nola edo hala ematen dutenak.

Gure ustez, 1997an idatzirik dagoen testu juridikoen multzoak ezinbestekoa egiten du aurrerantzeko lan terminologikoetan jadanik dauden testuen hustuketa oinarri

⁶ Eztabaidaren abiaburutzat jotzen da Koldo Mitxelena Muga aldizkarian (19, 1981, 4-19 or.) idatzitako "Nuestra irresistible ascensión de la poesía a la ciencia" artikulua sonatu hura.

garrantzitsuz hartzea. Hemen deskribatzen dugun lana, horretarako ekarpena izan daiteke. Euskal hizkera juridikoaren ehuneko handia itzulpena den bitartean —eta urte batzuetan hola izango da— lan honen metodologiaren antzekoak erabilgarri izango direlakoan gaude.

4. **Corpusa: legeria. Ezaugarriak**

4.1. *Legeak*

Gure korpusaren lehen mugapena ikuspegi juridiko batetik egiten da: legeak dira, lege-maila⁷ daukaten arau-testuak. Legea gaurko sistema juridikoetan zuzenbidearen hastapenean dagoen bezala, legeetako hizkerari ere halako oinarritzotasuna eta nagusitasuna aitortzen zaio: hastapenean lege-hizkera dago, legegileak finkaturiko terminoekin, eta ondoren, haren “meta-hizkuntzat” eman daitezkeen gainerako hizkera juridikoak: administrazioarena, judizioetakoa, notarioena... eta zuzenbide-zientziarena. Balegoke, hortaz, arrazoi epistemologikorik legeetako terminologiari lehentasuna emateko.

Baina historian garatutako hizkera juridikoa duten hizkuntzetan legeetako terminologia zuzenbidearen katean ezartzen bada ere, egia da euskararen kasuan, zuzenbideko hizkerak izan duen desarroilo atipikoa kontuan hartuta, zalantzarria dela lege-hizkerak halako lehentasuna eta eragina ote duen gainerako hizkeren gain. Horri buruzko azterketarik ez dugu ezagutzen.

Hortaz, ezin esan gure azterketaren balioa, zuzenbideko euskararen adibide batena baino areagokoa denik.

4.2. *Corpusaren ezaugarriak*

- a) Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratutako legeak dira.
- b) 1980ko urtarrilaren eta 1997ko maiatzaren 20a artean argitaratutako lege-testu guztiez⁸ osatuta dago beraz, corpusa unibertso hori bera da.
- c) Testu guztiek ezaugarri material-formalak beretsuak dituzte, testuen barne-ordenamendua ere beretsua.
- d) Edukiaren aldetik ere, duda gabeko koherentzia du multzo osoak.
- e) Gaztelania-euskara testu-parez osaturik dago, non jatorrizkoa (salbuespenen bat?) espainolezkoa den eta itzulpena euskarazko bertsioa .
- f) 155 lege dira guztira, 155 testu-pare, beraz. Aldizkarian inprimaturik bi zutabe paralelotan argitaratu dira, ezkerrean euskara eta eskuinean erdara.
- g) Oso luzera ezberdineko testuak dira, orotara, 1.500.000en bat hitz bi hizkuntzen artean. Euskarri informatikoan, ASCII formatoan 9.393 Kb okupatzen dute.
- h) Azterketarik, datu zehatzik ez bere erabilera praktikoaz.

5. **Hustuketaren ezaugarri nagusiak**

⁷ Maiz, eta hizkuntza askotan, ‘lege’ hitza ‘zuzenbidearen’ sinonimotzat erabiltzen da .Euskaraz, orain arte horrela izan da, eta oraindik, ‘zuzenbide’ hitza ez da, hurrik eman ere, erabilera orokorrekoa.

⁸ . Lege-maila formala duten testuak aukeratu ditugu, beraz, Eusko Legebiltzarrak eztabaidatu eta aldarrikatutakoak, alde batera utzirik gobernu zein administrazio desberdinetatik emandako gainerako arauak, eta beste testu juridiko-administratiboak. Ez dira, noski corpus horretan sartzen beste parlamentuek, Nafarroakoa kasu, emandako legeak.

5.1. Jatorrizko erdal bertsiotik abiatu gara

Hustuketa honetan, euskal terminoen bilaketa egiteko erdal terminoetatik abiatu gara. Hona hurbilketa horretara bultzatu gaituzten arrazoiak:

- a) Ditugun testu-pareetan, (gaztelania/euskara), jatorrizkotasuna erdarazkoari dagokio, bai hastapeneko testuak (lege-proiektuak) erdarazkoak direlako, eta baita Eusko Legebiltzarrean egindako zuzenketak, ia kasu guztietan, erdal testuaren gainean egin izan direlako. Ezin izan dugu erabateko salbuespenik baieztatu. Euskarazko testuak, hortaz, erdarazkoen itzulpen eta menpeko dira.
- b) Lehen aipatutako erlatibotasun eta salbuespenekin bada ere, gaztelaniazko terminologia finkatuzat eman daitekeelako.
- c) Erdal terminologia juridikoa hiztegietan jasorik aurkitzen dugulako.
- d) Euskal terminologia juridikoa, berriz, finkatu gabekotzat jotzen dugulako.
- e) Kontzeptu juridikoak adierazteko euskal hiztegi terminologikoez proposatu dituztenak, nola eta zein neurritan erabili diren aztertzeke dagoelako.
- f) Erdaraz forma terminologikoa duten kontzeptuak euskaraz zein forma duten aztertzeke dagoelako. Horixe baita gure ikerketaren alderdi bat.

5.2. Bilatu nahi diren erdal terminoen zer-nolakoak⁹

Ondoren ematen diren terminoen ezaugarri gehienak ez direnez formalak, modu erlatiboan ulertu behar dira. Irizpide-mailan gehiago deskribapen zehatz gisa baino.

- a) Terminoen definizio estandarra¹⁰ betetzen dutenak edo horretara gehien hurbiltzen direnak aukeratu ditugu; beraz, zuzenbideko kontzeptuen izendapenak, kolokazioak eta unitate fraseologikoak alde batera utzi ditugu.
- b) Testuingururik gabe zuzenean eta erabat uler daitezkeenak.
- c) Egitura sintaktiko sinpleenak (hitz bakarrekoak) lehenetsi dira, ondoren, lan terminografikoetan usuen agertzen diren N + Adj, N + prep + N eta beste ISdun egiturak.
- d) Erabilienak aukeratu nahi izan ditugu, eta eraberean, zuzenbideko adar nagusietako termino errepresentatiboak. Hau da, zuzenbideko alor guztietako termino erabilien lagina osatu nahi izan dugu.
- e) Esanahiaren aldetik, badira bi mota, erreferente generikoa daukatenak (izen arruntaren baliokoak) eta erreferente singularra, (erakunde, kargu eta arau-izenak). Unitate terminologikotzat hartu ditugun azken horiek nabarmenki luzeagoak eta konplexuagoak dira besteak baino.

⁹ Honetarako, saiatu gara sintagma terminologikoak eta ez terminologikoak bereizten, besteak beste Arazeli Diaz de Lezanak, (1993) eta Guy Rondeauk (1981) esandakoaren arabera.

¹⁰ ISOren 37. Batzorde Teknikoari jarraituz, *Vocabulaire systématique de la terminologie-k* (Boutin-Quesnel, Rachel et alii 1985) ematen duen definizioaren arabera, alegia: *Unité signifiante constituée d'un mot (terme simple) ou de plusieurs mots (terme complexe) et qui désigne une notion de façon univoque à l'intérieur d'un domaine.*

- f) Hasierako zerrenda 800 termino ingurukoa da, nahiz eta oraindik osatu gabe egon.

5.3. Paragrafo-mailako baliokidetza suposatuz. Egiaztaturik

Testu guztiak lege-testuak direnez suposatutzat ematen dugu, pare elebidunak testu baliokideak direla edukiaren aldetik. Baliokidetza hori, testuaz azpiko unitate txikiagoetan ere gertatzen dela suposatzen da, egitura formal berdina baitute: idazpuru, atalburu, atal, eta atal-azpiko zatien egituraketa beti berdina da lege-testuen bi bertsioetan. Testuaren egitura materiala ere, paragrafo mailaraino berdina (paraleloa) da. Puntu eta aparte guztiek balio bereko zatiak banatzen dituzte printzipioz. Puntu soilek, berriz, ez beti; hainbat kasutan, itzultzaileak erabakitzen baitu paragrafo baten barruko esaldiak eta puntuazioa jatorrizkoan ez bezala antolatzea.

Bertsio inprimatuan, (argitaratutako aldizkari ofizialak) paralelismo bisuala dago oro har: erdarazko paragrafoaren parean aurkitzen dugu euskarazko zutabeen paragrafo baliokidea; ez beti, ordea, noizean behin desberdintasunak baitaude, testuan zerrendak agertzen direnean bereziki.

Bertsio informatikoetan, berriz, aipatutako akatsez gain, desberdintasun asko daude, zeren eta itzulpen bidez lortutako testuak maiz luzera desberdinekoak izanik, parean jarri behar direnean, *itzuli* anitzen bidez lortzen baita espazioak berdintzea.

Orain arte egindako hustuketak erakutsi digu paragrafo-mailako baliokidetza badagoela. Alegia, balio informatibo-nozionala bi testuetan berdin banatuta dagoela paragrafoetan, nahiz eta, ondoren azaltzen dudan bezala, egitura-informatiko berdin berdina lortzeko akatsak zuzentzen hainbat eragiketa egin behar izan ditugun.

6. Urratsak

6.1. Zerrendak prestatzea / hustuketarako forma ematea

Gorago definitutako baldintzak betetzen dituzten terminoen zerrenda egiteko hainbat irizpide-mota erabili behar izan dira. Zientzia juridikoarekin zerikusi handiagoa dutenak alde batera utzirik, esan beharra dago artisau-lana izan dela zerrenda prestatzekoa.

Kasu batzuetan (*embargo* terminoa e.b.) hitz soila, termino zehatza izan arren, erabili ezinekora zelako hustuketa automatikorako (*sin embargo* guztiak husten baitzituen aplikazioak).

Beste kasu batzuetan, termino bakunak hobesteko irizpidearen kaltetan, termino konplexua aukeratu behar izan da, termino bakunaren polisemiarengatik. Esate baterako, *competencia* terminoa izan arren domeinu jakin batean, testuan (edozein testutan) izan dezakeen polisemia dela eta, *competencia exclusiva* edo *competencia compartida* bezalako unitate terminologiko konplexuetan bilatu behar izan dugu.

Beste kasu batzuetan termino baten forma bat baino gehiago sartu beharra ikusi da (*ejercicio de acción/ ejercitar acción* testuan forma estandarrena ez zegoelako, edo biak zeudelako).

6.2. Testuak paralelizatzea

Corpusa testu-parez osaturik dago: lege bakoitzeko bi fitxategi informatiko, non suposatzen den eduki-baliokidetza paragrafo-mailaraino, gutxienez, iristen dela; baina dokumentu informatikoetan hainbat akats aurkitu direnez, testu-pare bakoitzean elkarren itzulpena diren paragrafoak hurrenkera-zenbaki bereko tokian ipintzea izan da estrainako lana, alegia, ziurtatzea paragrafo baliokideak beti hurrenkera-zenbaki berdina zutela eta bi fitxategien paragrafo-kopurua berdina dela.

Ondoren deskribatzen diren urratsetan lehena izango da testu informatikoak paralelizatzea, paragrafo (*itzuli*-aginduz berezitako lerro-multzoa) guztiak baliokideak izan zitezen.

6.3. Hustuketa

Hurrats honetan bi fase bereizten dira, lehena gehien bat automatikoa, bigarrena, ordenagailuan egin baina ez automatikoa

A Fasea

Hustuketa-automatikoa prestatzeko direktorio batean sartu ditugu:

- a) hustu beharreko fitxategi-pare guztiak, izen bera eta hizkuntzari dagokion luzapena (CAS= gaztelania; EUS= euskara) eman ondoren, garaikako direktorioetan banaturik (GAR01, GAR02...GARN)
- b) erdarazko terminoen zerrenda eta
- c) hustuketarako aplikazioa

Ondoren aplikazio hori korriaraziz, GAR01...GARN direktorio guztietako CAS luzapena duten testu-fitxategi guztiak irakurri eta erdal terminoen zerrendako termino bakoitza bilatu du, eta bere baitan terminoa duen paragrafo (lerroa ASCII formatoan) osoa atera du, bertan terminoa markatua datorrelarik fitxategiaren izenarekin eta paragrafoaren ordena-zenbakiarekin. Maiztasun-estatistikarik egingo ez dugunez, zerrendako item bakoitzaren lehen hiru agerpenak¹¹ soilik atera dira testu-fitxategi (beraz, lege) bakoitzeko. Halaber, izen bera eta EUS luzapena duen fitxategitik, hurrenkera-zenbaki bereko paragrafo osoa atera du, hau ere dokumentuaren izenarekin eta paragrafoaren ordena-zenbakiarekin.

Honela,

```

===== derecho de tanteo:
----- gar01:
• En los casos de cesión, inter-vivos, de viviendas locales antes de que el socio adquiriera su plena propiedad excepto las que se realicen en favor del cónyuge y demás parientes que convivan en el domicilio familiar, la Cooperativa tendrá el <<<derecho de tanteo, hecho que será regulado obligatoriamente en los Estatutos Sociales. K=8201P OR=432
• Bazkidea erabat jabe izan gabe egindako bizien arteko aldatetetan, ezkontidearen eta familiaetxean bizikide diren gainontzeko ahaideen aldeko etan salbu, Kooperatibak prezio berdinean beretzakotzeko eskubidea izango du, Baltzu-Araudiak eskubide hori nahitaez araupetu behar duela. K=8201P OR=432
----- gar02:

```

¹¹ Murrizpen hau sartu nahi izan diogu hustuketarik ekonomi arrazoiengatik, agerpen errepikatua tratatzeak dakarren lana ebitatzeko, suposatuz testu berean (ez dira oso luzeak) termino berari ez zaizkiola itzulpen desberdin asko emango. Emaitzetan egiaztatu ahal izan dudanez, testu bakoitzean gutxitan agertzen da termino beraren itzulpen-baliokide bat baino gehiago.

<p>----- gar03:</p> <p>----- gar04:</p> <ul style="list-style-type: none"> • La regulación de los <<<derechos de tanteo y retracto supone un instrumento v lido para regular mbitos y relaciones no forzosamente civi-les, que en manos de la Administración va a permitir desarrollar en plenitud la función so-cial de la propiedad, posibilitando el acceso al disfrute de una vivienda digna y adecuada a este respecto, a las clases sociales menos privilegiadas. K=8807P OR=8 • Haztatze eta atzera egite-eskubideei buruzko arauetan dugu norbanako-alorrekoen besteko alor eta harremanak ere araupetzeko legebide baliotsua. Legebide horrek, Arduralaritzak erabiliz gero, bide emango digu jabegoaren gizarte-mailako egitekoa bete-betean burutzeko, bideak eskainiz, giza talderik ahulenek ere etxebizitza duin eta egokia lortu ahal dezaten. K=8807P OR=8 • La Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco gozar de los <<<derechos de tanteo y retracto en la primera y suce-sivas transmisiones sobre las Viviendas de Protec-ción Oficial y sus Anejos. K=8807P OR=12 • Euskal Herriko Autonomia-Elkarteko Arduralaritzak, haztatze eta atzera egite-eskubideak izango ditu, Agintaritzaren Babespeko Etxebizitzaren eta bere Eraskinen lehenengo jabe-aldakuntzan nahiz hurrengoetan. K=8807P OR=12 • El ejercicio de los <<<derechos de tanteo y re-tracto, indicados en el artículo anterior, se efectuar conforme al procedimiento si-guien-te: K=8807P OR=15 • Aurreko atalean adierazitako haztatze eta atzera egite-eskubideez baliatzea ondorengo bideari atxikiz egingo da: K=8807P OR=15
--

B. Hustuketaren 2. fasea: Euskal segmentu baliokide desberdinak aukeratu, mugatu, lematizatu eta gorde

Aurrekoak bezalako hustuketa-fitxategietatik abiatuta ekin diogu hurrengo faseari, erdarazko terminoen eduki nozionala daraman euskarazko testu-zatia aukeratzeari, alegia. Oraingoz¹² horrelako lanik egiteko tresna automatikorik ezagutzen ez dugunez, banan banan egin behar izan dugu, segmentuak mugatzeko irizpideak taxutzea bilatuaz. Irizpide formalik ezean, traduktologian eta semantikan oinarritu behar izan dugu erdal terminoak garraiatzen duen balio nozionala euskarazko zein testu-segmentutan dagoen zehazteko.

Baliokidetzaren supostua egiaztatuz, paralelizatutako testuotan, ordena-zenbaki bereko paragrafoetan, ia hutsik gabe aurkitu dugu erdal terminoen eduki nozionalari dagokion euskal testu-segmentua. Besterik da, oraino egin gabe dagoen azterketa, itzulpen-zehaztasunari dagokion balorazioa.

Ez estatistika eta ez azterketa filologikorik hemen interesatzen ez zaigunez, segmentu baliokideetan desberdinak bakarrik jaso ditugu. Xehetasunezko desberdintasun formalak, euskara batuari eta azken arauetakoko normalizazioari dagozkionak bezalakoak, ez ditugu kontuan hartu. Bai, ordea, gure ustez, lexikalizazio-mailari buruz zeresana duten kasuetan. Esate baterako hitz-elkarteen artean jarraian idatzitakoak eta bereiz edo marratxoarekin idatzitakoak, *agintemende eta aginte-mende, lege-gizon eta legegizon*.

Zailtasun asko aurkitu ditugu euskal segmentuak mugatzerakoan. Izan ere, hainbat kasutan, euskal testuan, izen-sintagma-mailakorik gabe, esaldi-mailako ala paragrafo-mailako baliokidetza (Zierer:1979) aurkitzen dugu. Esan nahi baita, IS egitura sinpleko erdal terminoaren ordainetan, erlatiboazko perpausadun ISak, aditz-sintagmak edo esaldiak aurkitzen ditugula hainbat kasutan. Balio nozional hura garraiatzen duen segmentu laburrena mugatzea batzutan ezinezkoa da, bereziki beste informazio gehigarririk ez eramatea nahi bada; esaterako, transposizioak eta modulazioak (Vinay J.P. , Darbelnet

¹² Testuen itzulpen-unitateen paralelizazio automatikorako programeria gaurko ikerkuntzaren gaia denaren ezaguera izan, eta beste hizkuntza-pare batzutan horretarako aplikazioak badirela jakin arren.

J.:1977) dauzkaten itzulpen-baliokideetan. Adibidez, *administración de justicia*-ren euskal baliokidetzat *zuzenbidea eragiten dutenak* segmentua aurkitzen dugunean, edo *contrato de adhesión* nozioa adierazteko euskaraz *amore emate hutseraino iristen den moduz eroste* itzuli denean.

Euskal segmentuak jasotzeko eta lantzeko lematizatu egin ditugu. Izen-sintagma deklinatuak *nor* kasu mugagabera bihurtzeko lana baina zailagoa suertatu zaigu maiz. Izen-sintagmara erreduzitzeko aukerarik ez dagoenean gehienbat.

Azkenik, erdal termino bakoitza, dauzkan euskal baliokide desberdin guztiekin, berauetako bakoitza iturri-datuak (dokumentu-izena eta paragrafo-zenbakia) alboan daramatzala gorde dugu. Mugapen-arazoak dauden kasuetan testuingurua ere gorde dira, ez ordea, euskal segmentuak izen-sintagma-egitura ongi mugatua duenean.

Hona hustuketa-fase honen ondoren lehen fasean eman dugun erdal terminoaren emaitza:

```
===== derecho de tanteo:
prezio berdinean beretzakotzeko eskubide K=8201P OR=432
haztatze-eskubide K=8807P OR=8
haztaketarako eskubide K=9007P OR=125
haztaketa-eskubide K=9007P OR=128
prezio berean jabetzeko eskubidea K=8905P OR=159
tanteo-eskubide K=9416P OR=140
```

6.4. Datu-basea osatzea eta ondorengo ustiaketa

Orain artekoa, antolamendurik gabeko testu-fitxategiak lortzea izan da. Hurrengo urratserako, testu-fitxategia datu-base bihurtu dugu. Gaztelaniazko termino bakoitzarekin erregistro nagusi bat osatu dugu identifikazio-zenbaki bat emanaz. Ondoren, erdal termino bakoitzari dago(z)kion euskal baliokide bakar edo anitzekin, identifikazio-zenbaki bera duen beste erregistroa osatu dugu, 1>N erlazioarekin.

6.5. Erabilitako softwarea

Aurreko faseak jarraituz: 1) Prestakuntzarako, PC-ko Windows eta MS-DOS-ean mugitu gara, ASCII formatuko testuak erabiliaz. Testuen paralelizazioarako nahikoa izan zaigu Word 6.0 aplikazioak bere tresna-barran eskaintzen duen paragrafoak zenbakitzeko botoia. 2) Hustuketa automatikoa: horretarako propio egindako MS-DOS-peko programa berezia eta ASCII formatoko fitxategiak, bai hustu beharreko testuetarako, bai zerrendetarako, erabili dira. 3) Eskuzko hustuketa: Word 6.0 testu-prozesatzailearekin. 4) Azkenik, hustuketaren emaitzak ustiatzeko Claris etxeko File Maker 3 Pro aplikazioa erabili dugu.

7. Egin-bidean dauden azterketak

Aurkezpenean esan bezala, hemen deskribatutako hustuketa, egin-bidean dagoen beste ikerlan zabalago baten urratsa da. Hustuketa honek ahalbideratzen duen ikerketa oraindik burutu gabe badago ere, hona hemen labur-labur emaitzen ustiaketaekin bideratu nahi ditugun azterketa-ildoak.

7.1. Terminologikoak

- a) Zein den “zuzenbideko termino oinarritzotzat” eman ditugun horiek corpusean duten presentzia: corpusean aurkitzen diren ala ez, noiz agertzen diren aurreneko aldiz.
- b) Erdal terminoak zuzenbideko zein adarretakoak diren badakigunez, azpisail horiek corpusean duten presentzia ere neurtu, eta adarren arteko konparazioak egin ahal izango dira.
- c) Erdal termino horietako bakoitzak zer duen baliokidetzat (termino finkoak, termino desberdinak (sinonimia), forma terminologikorik gabeko itzulpen-baliokidea...).
- d) Euskarazko zenbait egitura desberdinen alternantzia e.b.: I + I eta I + adj bere balio terminologikoaren aldetik.
- e) Polisemiari gertatzen den, alegia, euskal segmentu bera erdal termino desberdinen baliokidetzat ematen den.
- f) Zenbateko konkordatzia dagoen zuzenbideko hiztegi eta lexiko jakin batzutan proposatutako terminoen eta corpus honetan benetan erabilitakoen artean.
- g) Beste hustuketak egin ondoren egiaztatu ahal izango da zenbaterainoko eragina izan duen legetako terminologiak gainerako hizkera juridikoetako gain. (4.1. puntuko arazoa)

7.2. Sintaktikoak eta Lexikologikoak

Erdal terminoaren eta bere baliokide nozionala garraiatzen duen euskal segmentuaren azterketa eta alderaketa sintaktiko eta lexikalaren bidez ezagutu nahi dut:

- a) Zein erlazio dagoen erdal eta euskal egituren artean: esate baterako erdal *N + adj. erref.* eta *N + de + N* arruntek zer ordain duten euskaraz.
- b) Zein diren euskal segmentu baliokideen egitura ugariak.
- c) Zein kasutan agertzen diren euskal segmentu baliokideetan egitura bitxiak edo konplexuak.
- f) Hainbat hitz-elkarteren idazkera desberdinak eta lexikalizazio-maila (hitz bakarrean edo marratxoarekin idatzitakoak) Izan ere, badago kalko-erreflexu bat bultzatzen duena termino bati beste hizkuntzan duen lexikalizazio-maila berdina ematera.
- e) Euskal termino juridikoen neologiari buruzko azterketaren bat egin daiteke, hitza Orotariko Euskal hiztegian edo Egungo Euskararen Bilketa Sistematiakoan agertzen den.

ERREFERENTZIAK

Agintaritza-aldizkarietatikako hitz-bilduma. Vocabulario de los boletines oficiales (1985)
Vitoria-Gasteiz: Diputación Foral de Alava

AGIRRE Jon eta bestek : 1991, *Europako Ituneen Hiztegia, Vocabulario de los tratados europeos*. Gasteiz: IVAP

BOUTIN-QUESNEL Rachel et alii :1985. *Vocabulaire systématique de la terminologie*.
Québec: Réseau International de Néologie et de Terminologie

- CALVO RAMOS Lucía. :1980. *Introducción al estudio del lenguaje administrativo*. Madrid: Gredos
- CORNU Gérard: 1990, *Vocabulaire Juridique*. 2ème éd. 1990. Paris: P.U.F.
- DAVID Aurel: 1982. "Les termes elementaires du droit" in GÉMAR, Jean-Claude (dir) (1982:
- DAZ de LEZANA Arazeli:1993 "Terminologi hustuketarako irizpideak" in Berba 8, 1993 1-2
- DUARTE Carles, BROTO Pilar: 1986, *Introducció al llenguatge juridic*. Quaderns d'Estudis i Formació, Barcelona: Generalitat de Catalunya. Escola d'Administració publica de Catalunya
- GÉMAR Jean-Claude (dir):1982. *Langage du droit et traduction. Essays de jurilinguistique*. Montreal: Linguatex; Conseil de la langue française
- HERNANDEZ GIL Antonio : 1989, *Obras Completas. Tomo VI. Saber jurídico y Lenguaje*. Madrid: Espasa Calpe. 376 eta hurr.
- IVAP: 1986 *Administraziorako Euskal eskuliburua*. Gasteiz: IVAP 1986
-: 1994, *Hizkera Argiaren bidetik* Gasteiz: IVAP 1994
- KOCOUREK Rostislav: 1991, *La langue française de la technique et de la science. Vers une linguistique de la langue savante*. Wiesbaden: Brandstetter
- Lurralde Antolamendu eta Hirigintzari Buruzko Hitz-Bilduma *Glosario Sobre Términos de Ordenación del Territorio y Urbanismo* (1995) Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.
- RONDEAU Guy :1981. *Introduction à la terminologie*. Québec: Gaëtan Morin Editeur 78-81
- URRUTIA Ander eta LOBERA Angel:1995 *Euskara, Zuzenbidearen hizkera*. Bilbao: Deustuko Unibertsitatea
- UZEI: 1983 *Administrazioa Zirkulazioa Hiztegia* Donostia: Elkar
- : 1985 *Zuzenbidea Hiztegia* Donostia: Elkar
- VINAY J.P. , DARBELNET J. 1977 *Stylistique comparée du français et de l'anglais*. Paris: Didier
- ZIERER Ernesto: 1979 *Algunos conceptos básicos de la ciencia de la traducción*. Trujillo (Perú): Universidad Nacional de Trujillo

LABURPENA / RESUMEN / RÉSUMÉ / ABSTRACT

Lege-testu itzulietako euskal terminologiaren hustuketarako metodologia

Alor zehatz bateko corpus osoan erabili den euskarazko terminologia juridikoa lokalizatu eta aztertzeko metodologiaren berri eman nahi dugu komunikazio honetan. Terminologiaren ohiko metodologiaz at, hiru oinetan finkatu dugu gure lana: baliabide informatikoak, corpus-linguistika eta traduktologia. Legeriak -legea dagoenez

zuzenbidearen hastapenean- zuzenbideko terminologia osoan duen garrantzian oinarrituz, Eusko Legebiltzarreko legegintza-produkzio osoa hartu dugu aztergai. Legeen euskal bertsioak gaztelaniazko jatorrizko testuen itzulpenak direnez, erdal testuez baliatu gara, gaztelaniazko terminologia juridikoa aski finkatua eta bildua dagoelakoan, euskal terminoak bilatzeko. Bi hizkuntzetako testu guztiak euskarri informatikoan eskuratu ondoren, bi bertsioen alderatzeari, eta paralelizatzeari ekin diogu, eduki bereko testu-zatiak zenbaki bereko paragrafoan ager daitezen bietan. Ondoren aplikazio berezi baten bidez, aldeztetik prestatuturiko gaztelaniazko zerrenda bateko termino garrantzitsuenen agerpenak, bere testuinguru-paragrafo osoarekin, eta zenbaki bereko euskal bertsio paragrafoarekin, lortu ditugu. Ondoren, euskarazko paragrafoetan, erdal terminoaren eduki baliokidea daraman segmentua lokalizatu dugu, eta guztia, datu-base erlazional batera eramanez. Honela, jakin ahal izan dugu zein diren agertzen eta agertzen ez diren terminoak, zuzenbideko zein alorretakoak diren, zenbaterainoko finkapen-maila aurkitzen den euskal termino horietan, zein den gaztelaniazko terminoen euskal segmentu baliokideen egitura sintaktikoa, eta oraindik burutu gabe dagoen azterketa lexikologiko baten bidez, termino horien zenbait alderdi lexikogenetiko aztertzeke parada dugu.

Metodología del vaciado de terminología vasca de textos legales traducidos

Mediante la presente comunicación se pretende dar a conocer la metodología utilizada para la localización y análisis de la terminología jurídica en euskera en un corpus completo de un campo determinado. Prescindiendo de la metodología empleada habitualmente en el tratamiento de la terminología, hemos basado nuestra investigación en tres pilares: los recursos informáticos, la lingüística del corpus y la traductología. Como quiera que la ley está en la base del derecho, y dada la importancia que tiene la legislación en la terminología del derecho, hemos tomado como marco de la investigación la totalidad de la producción legal del Parlamento Vasco. Habida cuenta de que las versiones en euskera son traducciones de las originales en castellano, nos hemos basado en estas últimas para luego poder encontrar los equivalentes vascos, en la seguridad de que la terminología jurídica en castellano está suficientemente consolidada y recopilada en sus correspondientes diccionarios. Tras obtener el soporte informático con la totalidad de los textos en ambos idiomas, hemos procedido a confrontar y paralelizar las dos versiones, a fin de identificar numéricamente los párrafos que tengan el mismo contenido. Seguidamente, mediante una aplicación específica, hemos establecido conexiones entre las apariciones de los términos principales del listado en castellano previamente elaborado, el párrafo de contexto y el párrafo de idéntica numeración de la versión vasca. A continuación, hemos localizado en los párrafos en euskera el segmento que alberga el contenido equivalente del término castellano, y todo ello lo hemos trasladado a una base de datos relacional. De tal manera podremos conocer los términos que aparecen y los que no aparecen, a qué campo del Derecho pertenecen, el grado de consolidación que tienen los términos vascos, cuáles son las estructuras sintácticas de los segmentos vascos equivalentes de los términos en castellano, etc. Asimismo, esa fraseología que resulta tan transcendente en las hablas de finalidades específicas podrá ser tratada igualmente a través de la presente metodología.

Méthodologie du dépouillement de terminologie basque de textes légaux traduits

Moyennant la communication présente on prétend faire connaître la méthodologie utilisée pour la localisation et l'analyse de la terminologie juridique en basque dans le corpus complet d'un domaine déterminé. Ne tenant pas compte de la méthodologie employée habituellement dans le traitement de la terminologie, nous avons basé notre recherche sur trois piliers: les ressources informatiques, la linguistique du corpus et la traductologie. Comme il est vrai que la loi est à la base du droit, et étant donné l'importance de la législation dans la terminologie du droit, nous avons pris comme cadre de la

recherche la totalité de la production légale du Parlement Basque. Etant donné que les versions en euskera sont les traductions des originaux en espagnol, nous nous sommes basés sur ces dernières pour pouvoir ensuite trouver les équivalents basques, dans l'assurance que la terminologie juridique en espagnol est suffisamment consolidée et compilée dans ses dictionnaires correspondants. Après avoir obtenu le support informatique avec la totalité des textes dans les deux langues, nous avons procédé à la confrontation et au parallélisme des deux versions, afin d'identifier numériquement les paragraphes ayant le même contenu. Ensuite, moyennant une application spécifique nous avons établi des connexions entre les apparitions des termes principaux de la liste en espagnol préalablement élaborée, le paragraphe de contexte et le paragraphe de numération identique de la version basque. Puis, nous avons localisé dans les paragraphes en euskera le segment qui regroupe le contenu équivalent du terme espagnol, et enfin nous avons transporté tout cela dans une base de données relationnelles. De cette façon, nous pourrions connaître les termes qui apparaissent et ceux qui n'apparaissent pas, à quel domaine du Droit ils appartiennent, le degré de consolidation que possèdent les termes basques, quelles sont les structures syntaxiques des segments basques équivalents des termes en espagnol, etc. De même, cette phraséologie qui résulte si transcendante dans les langues de finalité spécifique pourra être également traitée à travers la méthodologie présente.

Method for extracting Basque terminology from translated legal texts

This paper is intended to make known the method used to locate and analyse legal terminology in Basque in a complete corpus for a particular field. Discarding the methods usually used in terminology processing, we based our research on three points: computer resources, the corpus linguistics and the science of translation. Since legislation itself is the basis of written law and is therefore highly important in legal terminology, we took as our framework for research the whole body of law produced by the Basque Parliament. Since the Basque language versions are translations of Spanish originals, we based our study on those originals and then found their Basque equivalents, in the sure knowledge that legal terminology in Spanish is sufficiently well consolidated and set down in dictionaries. After obtaining the full texts in both languages on a computer data carrier, we proceeded to compare and set out in parallel the two versions so that we could identify with numbers those paragraphs which had the same contents. Using a special application we then established connections between the appearances of the main terms in the Spanish list already drawn up and the context paragraphs and paragraphs with the same numbers in the Basque version. We then located the segments of the paragraphs in Basque which contained the term equivalent to the Spanish one, and transferred the whole thing to a relational database. This allows us to determine what terms appear and what terms do not appear, the area of law to which they belong, the degree to which the Basque terms are consolidated, the syntactic structures of the Basque segments equivalent to the Spanish terms, etc. Phraseology, which is so important in specialist language, could also be treated in this same way.